Gaudisti - gayetzaz

IXARRAK

AGAREL

Ixaŕa: au da itxaren zoragaŕija eta oleŕkarijentzat eta eliztilarijentzat batez bere. Geuk oleŕkarijak alde batian itxita itz oni eliztilari letz obatuko dautsagu lenengoz. "Ixaŕa" "izaŕa" da, ta mugitza aldenduta izaŕ. Izaŕ "iz +aŕ" da, ta argi gaya dikuŕ. "Iz" zatija itz askotan dauŕkigu; izpi "rayo de luz", ta abaŕtan. Baña lateran, be, bai-dauŕki "stella" itxan, stella, ba; iz -til + a da, ta argi txikija dala uste dogu Aŕiandiaga Abeaz. Izaŕ, ba, "cosa de luz" da. Ixaŕ itxak ortzan ibili dabiltzan gorputzak dikuŕtz.

Ixaŕak gabez bakaŕik ikusten dira luŕ -azaletik begiŧu ezkero; oxin batetik begiŧuzkero baña egunez, be, ikusten dira. ¿Zegatik ete-da ori? Eguzkijaren izpijakatik da ori, eguzkijaren izpi oŕek, ba, zabaldu egiŧen dira ta luŕ-azaletik ezin ikusi eguzkijaren izpijak baño, baña oxin-baŕutik, eguzki-izpijak aldendubaz ixaŕak ikusten dira.

¿Zenbatzuk dira ixaŕak? Nok erantzun iŧaune oni? Graindikan ezin leikiagu erantzun, ikusten doguzanak zenbatutia gatxa dogulako ta ikusten eztoguzanak asko geyago diralako.

Ixaŕ gustijok eztira baŕdiñak, bata bestia baño aundijagua diralako. Izpi bardiña be, eztabe, berezijak dira izpijetan be. Ixaŕ gustijak igiŧuten dira ortzian. Ludiko alde edo toki bakotxetik ikusten dogun ortze -atala erdija baño ezta, ta atal-erdi oŕetan eztoguz ixaŕ batzuk ikusten, urtearo bakotxian aldatu egiŧen dalako.

Gaudi gustija igiŧuten da: gaudijak 24 gabeukiŧan egiŧen daun igikunari-"egun -igikuna" ereizten yatza, egun "osoko" igikuna dalako. Gaudijak igikun ori "urtezko ardatz"-biguŕijan dagi, ta urtezko ardatz oŕi, "gaudi-ardatza" ereizten yaka. Ardatz oŕen alde bijetan dagozan ixaŕ bijai "aŕbun-ixaŕak" ereizten yake. Ixaŕ bi oŕeik, antzez beintzat, igikun bagakuak dira.

Ixaŕak talde askotan bananduten dira: aŕunkiro baña talde edo piło biŧan: "izpidunak" eta izpigiak". Izpidun ixaŕai "eguzki" ixena emoten yake ixaŕiztijan. Izpidunak eurez argija daukenak dira, ta igikunetan beti baŕdin-samaŕ dabiltzanak. Izpidun bakotxak ixaŕbil asko daukazala uste dogu, geure eguzkijak daukazanetz, ta igidunetan eta neuŕijetan baŕdin -samuŕak uste doguz. Ixaŕ gustijak igikun bi dauzke: bata erdigikuna bere ardatz-biraka ta bestia atigikuna geuk oraindiño eztakigun ixaŕ baten biraka. Ixaŕetatik ixaŕetaraño neuŕijak ixugaŕijak dira. Beste egunen baten ekaŕiko dautzudaz, irakuŕle, arako batzuk.

Ixaŕen aundiŧasuna euren argijaz ezagututen dogu: euren argija dala-ta, ba, ixaŕak amazoŕtzi pilotan banandu doguz: lenengo sei piluak uŕutikuskin baga ikusten doguz, beste gustijak uŕutikuskin-bidez. Lenengo piloko ixaŕak ogei (20) dira; bigaŕen pilokuak irurogeta bost (65); irugaŕenekuak eun eta larogetamaŕ (190), laugaŕenekuak laŕeun eta ogei; boskaŕenekuak (1.100) anei ta eun, ta seigaŕenekuak iru anei ta beŕeun (3.200).

Uŕutikuskin baga ikusten doguzan ixaŕ gustijak 4.995 dira.

Ixaŕak batian bi batuta dagozanean "bikotxak" dira, "askotxak" iru, lau, bost edo geyago batuta dagozanian. "Epekuak", epietan argija geŧu edo gitxiŧuten dabenian. "Aldakoŕak" epietan barik edozein aldiŧan argija ta otian izpija aldatuten dabenak. "Margodunak" argi zurija barik beste edozein margotako argija ba-dauke.

Ixaŕak piluetan dagozanean "ixaŕ-pilo" ixena aŕtuten dabe, ta gustijak andiŧasun -baŕdin-samaŕekuak dira: aŕunkiro boronbil-antza dauke ta erdijan senduaguak dira, au da, erdiŧik gugana datoŕan izpija ertzetakua baño asko gogoŕagua da. "Ixaŕ -pilo" gustijak eztira boronbil-antzekuak, aŕantza-antzekuak eta erestun-antzekuak, be, bai-dagoz. "Ixaŕ-pilo" oneik ixaŕti askotan dikusguz: Centaurus ixaŕtijan, Lyra ixaŕtijan, Andromeda ixaŕtijan, t. a.

OZTODEYAK.—Gaudizti-gai-onein irakuŕliak lendik dakije zertzuk etx-diran oztodeyak: oztodeyak, lenengoko oztodeyak soŕtu leban gaudija, batzuketz Oztodeyak, ixaŕ-pilo aundijak dira, esne-antzeko ixaŕ -pilo aundijak. Odeyekaz antz aundija daukelako euzkeraz "ortze-ordei" edo oztodeya" ixentanten dautsegu. Ozto deyak eztira irudi batekuak, eztira era batekuak, irudi ta era askotakuak baño. Czte deyak asko dira ta ixaŕti askotan dikusguz, lunagan, artzaga nausijan, irantsugagan, t. abaŕtan.

"Via Lactea" ixaŕ-pilo aundija da, oztodeyaren antza daukanaŕen; ondo begiratuzkero, ba, ixaŕ-pilo gusti ori ixaŕtan bananduten dogulako.

"Ixaŕtijak" aŧatu doguz goyan: ¿zertzuk dira ixaŕtijak? Ixaŕtijak, itxoŕkunez, ixaŕ -batzeak dira, "ixaŕ-di", edo "ti,,'tik datoŕ -eta: eŕderaz "constelación" da (com-stellatio'tik) au da, ixaŕ-pilua edo mordua. Ixaŕtijak ortziari irudijak egiŧen dautsezan ixaŕ-moltzuak dira; lun-antza ba'dau ixaŕ -pilo oŕek, "lunaga" ixaŕtija ixentauko dogu, artzaren irudija emoten ba'dautsa, baŕiz artzaga, ta abaŕ.

Ixaŕtijen ixenak antxiñatikuak dira: ortzeko ixaŕak ataltan banandutia erabagi leben antxiñan ixaŕen-gora-bereak obeto jakin eta ikusteko. Oŕegaŧik ixaŕak eurez leukezan daneuŕtizti-irudijetan atal du lebezan, ta gero eurei legokijezan ixenak ezaŕi.

Itz atzalgaŕijak

Izpiduna (ixaŕa) izpi + dun = de luz estrella fija.

Izpije (ixaŕa) izpi + ge = sin luz = planeta = ixaŕbel.

Ixaŕizti = ixaŕ + izti = tratado de las estrellas, astronomía.

Uŕutikuskin = uŕuti-ikuskin = telescopio.

Boronbil = esfera.

Ixaŕti = ixaŕ + ti = constelación.

Oztodeya (edo oztodeya) = ortze + odeya = nebulosa.

Lunaga = lun + aga León (constelación).

Artzaga = artz + aga Osa (aundija) mayor, (txikija menor).

Irantsugaga = irantsuge + aga = Dragón.

Jaupa ondoren ezpatadantzarijak dantzaketa alai-ikusgaŕija dantzatuko dabe.

Ordubatetan oturuntza.

Aŕatsaldeko iruretan ezpatadantzariĵen bigaŕen dantzaketea Lauretan itzaldijak esango dira. Izlarijak Bizkai-Mendigoxale Batza'ko batzoŕde batek auŕkestuko dauz.

Itzaldijak, Urkiaga'taŕ Eusebi.

Bernedo'taŕ Pelagi eta

Enbeita'taŕ Imanol'ak esango dabez.

Ondoren dantzaketea.

Uaŕa.—Datoŕen igandez Miloi'ra juateko ustia dauken gustijeri aŕen deskatsegu iluntzeoro batzokiratu daŧezala gotzon jaupea ikasten.

PELOTA TXAPELKETA.—Igazi dan igandez Bilbao'n jokatu eben emengo pelotarijak lekeitiaŕen aurka eta garale urten ziran. Irabazte onegaz pozkaŕi sarija etxeratu dabe.

AŔANTZALIAK. — Aspaldijon txaŕto be txaŕto dabiltzaz aŕantzaliak. Egunokaz bokarta ekaŕi dabe baña tamalez gitxi ta txikeŕa.

UDAL ETXEKO IZPAŔAK.—Igazi dan astelenez ziñegotzijak batzaŕian batu ziran eta erabagi onetxek artu lebezan:

Udaleko batzoŕdiak ixentau.

Bilbao'ko udalak euzko araudijetzaz egin daben iŧaunari bayetzian erantzun.

Eskatuta dagon umien aldi-ikastolarako biaŕ diran gayak ekaŕi.

Erespatzak aspaldiŧik dagijen opoŕa ainbat lasteŕen atondu. Idazkarijak uriko txinditzaren jakintsu ipiñi leuzan ziñegotzijak. Berak agertu lebanez laŕeun eta emeretzi anei (419.000) iauŕlekoren zoŕa dauko urijak.

Beste gaŕantzidun gai barik amaŧu zan batzaŕa.

IBAI-ONDO.

BIOTZ-BEGIETAN

Libro de poesías
con traducción castellana

Xabier de Lizardi
(Prólogo de «Orixe»)

URRETXUA

Il onetako 1'an goizean agertu ziran uri onetan, beste uri geyenetan lez, Gestora ta España'ren menpetusunaren auŕka ta Euzkadi'ren aldeko idazkiyak eta lauburubak margozturik.

Ondorengo egunetan irakuŕi giñuzen uri askotako gaste abeŕtzaliei isun gogoŕak bizkaŕeratu zizkiela. Uri onetan otzan jakin ez nortzuk ez zelan margoztu zituzten.

Auŕekuak kentzen alegindu ziran, baña il onen 13'an goizean beŕiz ageŕtu ziran orma, bitxabal da dana margozturiko idazki ta lauburuz josita.

Irakuŕtzen ziran idazkiyetako batzuk abek dira: ¡Por democracia! ¡Abajo las Gestoras! ¡Abajo la tiranía española! ¡Gora Euzkadi azkatuta! e. a.

Etzan baña amen gelditu bat-edo-batzun ausardija. "Edeŕena" pelota-lekuko egasti edo telatu gañlan ere agertu ziran lauburu bat eta idazki bat esaten zuna ¡Viva la República Vasca!

Gauza abek, batzuk pozik ikusi dituzte bestiak bestiak minduta, ta geyago mintzen dira ez nortzuk ez zelan egin duten eztakiyelako.

卐 卐 卐

Danok dakizute zertarako diran aspuak, puts egiteko, ba nik uste det Zumaŕaga ta Uŕetxua'ko gizontxo batzuk aspo biurtu dirala edo aspuaren zeregiña betetzen alegintzen dirala.

Gizontxo itzak esan nai du gizon kaxkaŕa, ez gizon txikija dalako zergatik gizona ezta neurtzen bere aundi-txikijagatik bere egintzakatik baizik. Beraz, egintza kaxkaŕeko gizona gizon kaxkaŕa naiz ta soñez aundija izan.

Gizontxo abek ba zai-zai dare txaidietan, ardandegiyetan da beste edo-nun entzuten duten gustija txinelaei belaŕira puts egitera juteko. Aspo-gizonak deŧu biaŕko.

Eran atsegin gustija abeŕtzaleak zigorituta ikustia da, baña oŕekin, notin ikurazko gustijen auŕian gixajo batzuk bezela agertzea besterik eztute loŕtzen. ¡Gixajo batzuk bezela agertzea! Orixe lortzen dute

Gañera onezkero ezagutu biaŕ luteke gizontxo abek, eztituztela abeŕtzaliak bilduŕtuko ez isunakin, ez espetxekin ezta ezeŕekin ere. Abeŕtzaliak ba-dakigu noraño jun biaŕ degun, azkatasunaraño, ta zein bidetatik jun biaŕ degun ere bai; Sabir zarakasle maŧiak irakatsitako bidetik. Ortik ez gaituzte ba okertuko, ez onian da ez txaŕian. Ikusi dute zer gertatu dau marguakin. Eztek gura katilukara bat? to katilu t'erdi.

卐 卐 卐

Igaro dan igande goizeko jaupan Zabaleta'taŕ Koldobika jaunak egin zun txonitza (sermoya) ta esan zun zun 200 uŕte zirala Hoyos abari Josu'ren Bijotza agertu ta esan ziyola España'n eŕeinatuko zula beste tokiyetan ez bezela, ta amaŧu zun esanaz. "Etoŕi danok aŕatsaldeko elizkizunera otoitz egitera nazio onetan Josu'ren Bijotzak ereinatu dedin".

Lasteŕ soŕtu zitzaidan zalantza bat, zergatik oldozten nun. Oran beŕeun uŕte emengo mutilak etzeukaten gudari jun biaŕik, amenguak etzeukaten España'ri zerga (contribución) ordaindu biaŕik. España'ko muga-zayak Ebro ibayan zeuden, amenguak España'ko lagiyakin zer ikusirik etzeukaten amenguakin baño. España'ko Bakalduna amengo Bakaldun izan aŕen zin-egin biaŕ zun amengo lagijak beteko zitubala ta eran auŕkako ezer agintzeko eskubiderik etzeukala; beraz, au etzan España.

Geroztik Euzkadi'ko zati bat Prantzi'ren mende dago, beste zati bat España'ren mende, ta batzun esanari jaramon egin ezkero batzuk españaŕak eta bestiak pantzetaŕak gera. España'n Josu'ren Bijotzak eŕeinatu dedin otoitz egiten ba-degu gure otoitzak eztute baliyo Prantzi'ren mende daren abenda anayentzako ta baliyo dute Ebro'tik asi ta Andalucia arteko danentzako, ta orian beŕeun uŕte nola au etzan España guretzako ere eztute baliyoko España'n alde egiten ditugun otoitzak. Zelan jaten da au?

Nik uste det onena izango dala euzkotaŕak lenbizi Euzkadi alde otoitz egitea ta ondoren ludi gusti alde.

España españaŕentzat,
Euzkadi euzkotaŕentzat...

AŔI GOTZON.

ERRIJETATIK

ISASONDO

EZKONTZAK.—Auŕeko astian ezkondu ziran guŕe lagun maitea-dan Garmendia'taŕ Biŧorin Ibarguren'daŕ Perdiñanda'kin. Ezkon ibilaldia egin ondoren Azpeitia'n jaŕi dirade bizitzen.

Baita ezkondu dirade Eztebez Moreno 'taŕ Eŕemigi Mendizabal'daŕ Sorne'kin (Concepción).

Zorionak danori.

ZIRIKA'RI.—Noizian bein egiten dezu egeŕalditxo-bat, diyozun bezela kukuarena da ori, Jaŕaitu auŕera erabat idazten nik esan gabe utzitzen ditudanari begira egon gabe, nik batetik lan asko, ta bestetik satutxoa nago lan abetarako, ta, "entxufetxo"-bat balego "eŕetirua" artuko nuke.

ORDIZIA'KO JAYAK. — Ordizia'ko Emakume-Abeŕtzale-Batzak, Jai-aldi aundiak eraldu ditu, il onen 21'ko.

Muga egiŧen zaigun uria degu Ordizia, beragaitik etxekotzat dauzkagu Ordizia'taŕak, ta etxekotzat dauzkagun ezkeroztik, laguntza guztia eskeñi beaŕ diegu.

Ortarako asi dirade bai abeŕtzaliak ta bai E. A. B.'k ikuŕin da gusti, danok zail batian juateko, zer ordu jaŕi ta nola juan erabakitzen.

Uri onetatik abeŕtzale gustiak juango gerade, ta abeŕtzale ezdiran asko-ere bai, Agiŕe'taŕ Joseba Andoni'ren itza entzute -aŕen. Orl bera egin dezatela, Gipuzkoa'ko uri guztiak.

MURUMENDI.

ELGOIBAR

BIDE ZURITZALEAK. — Larunbata goizean uri ontan ere agertu ziran, beste urietan agertu diran antzera, bitxabalak, ikuŕ eta idatziz beteta "Euzkadi da Euzkotaŕen abeŕia", "España'ren mendean ez degu bizi nai" eta beste izen batzukin; naikoa buru auzte jaŕi dute emengo "democrata" artean, nortzuk izan ote diran jakin nairik, eta batzuk diote lau txiŕindulari izandu zirala idatzi zituztenak, beste batzuk beŕiz belbilean etoŕitako batzuk izan zirala; dana dala naiko lan izan dute "kamineroak bideak garbitu eziñik, bada itxura danez "ungüento morokil" beŕi eta berebizikoa erabili zuten zuritzaleok.

ANTZEŔKI-JAYA.—Entzun degu datoŕen larunbatean (J. L.) Euzko-Batzoki 'ko antzeslariak antzestuko dutela "Iziartxo", Garitaonaindia'taŕ Biŧoŕ'en atal biko antzeŕki polita. Taŕtean ere izango dala "monólogo" edo bakaŕ izketa bat emakume batek ezanda. Beraz badakizute abeŕtzaleak nora jun beaŕ dezuten larunbat gabean, Batzoki'ko aretora eta etzaizute damutuko.

E. A. B.'REN ASKUNDIA.—Il onen 28'an, ospatzeko asmoa dute emengo Emakume Abeŕtzaleak beren askundia eta ikuŕtu onespena, eta ortarako jaŕirik dauden Batzoŕdeak gogoŕ ari dira lanean; uste osoa degu jai aldi edeŕ bat igaro araziko digutela eta sayatuko gera beŕiak azaltzen, eta zu "Lauaxeta" ere ekin gogoŕ emengo Zabalkundea egiten egun ortan Elgoibaŕ 'ko uri guzia abeŕtzale biurtu dagigun, iztaŕiak azalduko dituzten aŕazoaikin eta emen bildu nai degun oztetza aundiakin, ikusi dezaten oraindik itxuturik arkitzen diradenak ere, noraño dagoan saŕtuta abeŕtzaletasuna gure Euzkadi maite ontan, eta Euzkadi azke izango dala guk gustiak nai degulako.

EKAITZA.

ONDARROA

MILOI'RA. — Zaletasun aundija dago abeŕtzalien aŕtian datoŕen igandez Lekeitio, Markina eta Ondaŕu'ko mendigoxaliak eralduta Miloi zazunean egingo diran jai berkoyetara juateko.

Jayaren egiŧaraba auxe da:

Goxian, zoŕtziretan txadon auŕetik urtengo dabe mendigoxaliak.

Amaŕetan jaupa abestu bat egingo da auzuneko Andolin deunaren basotxonuan. Mendigoxale abesbatzak "Gotzon jaupea" abestuko dau.

Jesús Ostolaza
BERGARA

卐

FABRICA DE INSIGNIAS
DE ESMALTE FINO
AZALIRARRI MIEZKO
IKURRIÑEN OLEA

SE RECOMIENDA POR SI SOLO EL ALIMENTO INSUPERABLE

ALAR-ONENA

Olo aŕautzagilientzat eta txitak azteko. Utsik ematen ez duten jatekuak: Aragi, aŕain eta azuŕ-irin "Alar Onena".

Especialísimo para gallinas ponedoras y cría de pollitos. Resultados garantizados Harinas de carne, pescado y hueso "Alar Onena".

Maria J. Esnaola

Miracruz, 21 SAN SEBASTIAN Teléfono 12.014

¡ALERTA! EXIGID SIEMPRE LA MARCA "ALAR ONENA"

BASERITARRAK

¡EUP!...

ILA ONEN 21'AN GUSTIOK MUNGIA'RA

Mila urte ta bederatzireun
Ogei eta amairuan,
Mayatz ilaren ogeta bata
euki dezagun goguan,
Bizkaya'n diran eŕemandada
danen Federaziñoan,
jai edeŕen bat gertatzen dabiltz
diñauden lez aurtenguan.

Jai edeŕ ori zelebretta
erabagi da Mungia'n,
Baseŕiŧaŕik gorenenguak
batzen diraden eŕian,
amaŕetako Mesa Santua
izango dala goxian,
geure guraso zaŕak antxiña,
egiŧen euden legian.

Amaŕetako Mesa ostian
dagoz ezpatadantzariak,
aŕi-jasoten ospetsuenak
uŕengo palankariak,
Eguŕ-ebaŧen aizkoraz-eta
Alboka-soñulariak
onen uŕengo Desaipioa
daukie Bertsolariak.

Bazkal-ostian izango dogu
zer ikusia ugari,
Mitiñe emoten egongo dira
iru edo lau izlari,
gauza egiak irakatsiaz
ango baseŕiŧaŕar,
etxian iñor geratu-barri
gustiok ara etoŕi.

Federaziño bi dagoz Bizkaya'n
bata da Katolikua
baseŕiŧaŕik gorenenguak
alkaŕaz atondukoa,
maŧe daudenak oŧura zaŕa
eta geure Jaungoikua,
Mayatzan ogei eta batian
Mungia'n dauko lekua.

Mesa Santuaz asiko gera,
tanboliñagaz amaŧu,
Zeuen eguna dozue-eta
baseŕiŧaŕak ez aztu.
egun oŕetan etoŕi danok.
iñor etxian ez lotu,
aguŕ gustioi biotzez-eta
nire eskariak parkatu.

"EGUN AUNDIA BAITA GAURKOA"

Goizean-goiz, eguzkia txeletaka. Noizpeinka, arpegi dirtiratsuba darakus. Eguardiruntz, eguzki izpiak jorik dute oro. ¡Berbizkunde egunaren edeŕa!

Peregabeko eguna. ¡Abeŕi-eguna... Abeŕtzale orok, Donostia gendun biotz-biotzean. Oea utziz gero, antxe ametsak galerazi bai zigun lau bost aldiz lo goxoa, Donostiratzea gebilkigun amets.

Ama, begi-aundi; aŕiturik. Baña mutil, seirak besterik ez, eta begi ernai... Osiñez aldek lo-kabia?

Egun aundia baita gaurkoa. ¡Berbizkunde eguna! ¿Nola egon oyean? Abeŕia maite ez dutenentzako gauŕ oya; euzko abeŕtzaleok, Donostia'n degu batzaŕ nagusia. Batzaŕkide orok, goizean goiz besarkatzea degu egin beaŕ.

Aupa mutilak... soineratu jantziak... Plist, plast... udabeŕi goizetan mendi goitan eguzkia danean, bai atsegin zaigula udaz jolastea... apaindu... eta, gero-arte etxekoak, aguŕ.

Kalean gera. Orok Berbizkundea dabest. Beste egunetan, entzun-gaitz zaigun kale -garbitzalien mintzo zataŕak ere bai.

Bat, bi, iru, lau... besterik ez. Etortzen al dira egun obexeagoak. Ez dek belakoxean baŕeyatzeko abeŕtzaletasuna gure txokoan. Tolosa'ko txaide luzienetaŕikoan, ez bai nintun lau "colgadura" baño begiz jo. Utikan ordea gogorapen txaŕok... Tolosa'n ere arkituko dik noizbait abeŕtzaletasun-Berbizkunde eguna...

Eleizan, antxe bai laubidetxoa. Ezin ene irudimenarekin burutu. Eŕesatu nai; eta ezin... Donostia'ra dijoazan Oñate'ko Bergara'ko automobilen zuŕunkak dira, ene otoitza galerazi bila. Eleiz-ataŕiratuak... ¡Kontxo! Ene irudimena, Euzkadi zeaŕ dabil... baña ala ere, noizbait esitu det. Ordaindu beaŕ dizkit oraintxe. Ordurditxo bat igaro nai ez beraz Jainkoa'z mintzatuz?... mezatxo bat dana. ¡Ordubete orain! Bi meza... Laisteŕ España'ri gertatuko zayona bera. Euzkadi buruz azkatasun apuŕño bat opa nai ez orain, eta gero, apuŕño ori pozik opa izango lukenean. azkatasun osoa beaŕ guk.

Meza entzunik naiz. Ene irudipen ametsbera jolastu leike nai aña. Badu nun.

Abeŕi-etxe inguruk abeŕtzalez gal-gal. Tolosaŕ abeŕtzale oro an giñalakoan naiz. Bazan antxe arpegi alayez... "Bergaraŕak etoŕi dituk"... "Oñatiaŕak ere bai azpaldin"... Et bidezabalak galdezka ginduzkan tolosaŕak: "¿Iruñako automobilak bai al zetozek?"

Noizpaitekoan azaldu ziran oŕatik, Nabaŕa'ko abeŕtzale maiteak. Bata bestearen atzetik ogeitamaŕ automobilez gora.

Abeŕtzalea, ametsetara edo zijoan oargabean ango edeŕtasun ikusirik Beribilak etoŕi eta etoŕi jende mordoak jario. Tolosa 'ko Abeŕi-etxeko inguru oro belbilez josirik, "garage" izugaŕi bat iduŕi.

Eta abeŕtzale txinguŕitegiari begi-aundi negolarik, ene irudipena jo batera jo bestera nebilkidan geldiunerik gabe. Euzkadi 'ko basteŕ orotatik Donostia'runtz nenkuskidan euzkotaŕak: Menditaŕ aitonak mendian bera, lasai; menditaŕ gazteak bidetxioŕetatik, laisterka; neskatilak, sagaŕ musu goŕiak iduŕi, soro ertzetatik aldamenka; mendigoizaleak, basoz-baso; kaleraŕak, beribil ta trenez Txiŕindulariak... eta azkenik, itxasoz ere, Donostia'runtz nenkuskidan, ene irudipen indaŕez, euzko aŕantzale ausartuak...

Luzaroan egon nintzan ametsari emanda. Luzaro... ene irudipenaren indaŕak txepeldu edo zirancan abituak nitun beintzat Donostia'runtz, Bergarataŕak, Oñatiaŕak, Antzuolataŕak eta baita Iruñaŕak ere. Eta ayei-begira zoraturik eduki nintun begiak, berebaitaratu ziralarik, ara nun zetoŕen beŕiro ikaragaŕitako automobil saila: Gazteiztaŕak. Geroxeago Aretxabaleta'taŕak... auzkalo zenbat eŕitakoak...

Aŕigaŕia onelako abeŕtzaletasun agerketak egin litzaken Alderdia. Zorionekoa onelako Alderdi jabe dan eŕia... ¡Zorionekoa Euzkadi!

Bein bitaŕtean, orok Berbizkundea dabest. Abeŕtzaletasun arerioen, laukana luzeko arpegi begi-aundi ernegatuak ere bai...

UZTUŔE.

Lamiña'ren ostikadia

Antziña, "Pagatzarte,,'ko mutila, Eskubaratz'era orbeletan juan zan. Eta, mendian lanean zintzo iñardubala, gabaran oyal baltzak, berak uste eban baño askoz lenago estaldu eban egunaren argija.

Gabaren iluntasunaz, gure mutila, apuŕ bat ikeratu zan; bai-ekijan ba, a ingurua, lamiña ta sorgin leku bilduŕgaŕija zala. Lamiñak baña, ainbeste ezeben bilduŕtzen; sorgiñak, ostera, asko; gaiztoagoak ziralako edo.

Eta gabaren aldi bakana, oinkada ixilez auŕera joyala ikustian, orbel-zoŕo andi bat bizkaŕeratuta, etxerantza bizkoŕ abijau zan. Bidian, ixiltasun miragaŕi bat nabaitzen eban, gixonik ez abererik ludijan bixi ez bai-litzazan lez...

Alako baten baña, ixiltasun itzalaren erdijan, ujuju zoli ta alayak entzun ebazan. Eta zarata areikaz ikeratuta, bere begijak Sagarmin'go landa zabalera zuzendu ebazan. Eta antxe landan bertan, lamiña pilo bat neskatil lirain eta edeŕen antzian jantzan eta jantzan ebiltzazale ikusi zituban.

Orduban, "Pagatzarte,,'ko moŕoskua, neska-dantzarijak obeto ikustiaŕen, bizkaŕian eban orbel-zoŕua luŕeratuta, aŕi -mokil baten ganian patxaraz jezaŕi zan. Eta aldi luzian adi-adi egon zan. Ainbeste ta ainbeste emakume edeŕ euren soin luze -meyakaz, luma utsezkuak bai-litzazan lez, axiaren soñu-otsera txairo ta bizkoŕ jolastuten zirala ortu eban ¡Alako ikuskixunik!

Eta ikusten ebazan gauzakaz osoro gelduta, bere kolkorako esaten eban.

—¡Oneik bai jantzarijak! Onako emakumerik, nire begijak egundo etxuet ikusi... Oŕatik onako bategaz aiko-maiko andi barik ezkonduko nitxakek... Baña, tamalez, ateak (paŧak) lako oñak diŧubezalako, ezin ezkondu euroŕ lako bategaz; gure amak ba, nire emaztia lamiñia dala beingoan igaŕiko leukek eta... ¡Auxe tamalgaŕijena!

Onango autubakaz mutila ebilan aŕtian, lamiñak, euren jolas bakanak amaŧu ebezan. Eta amaikeran, lamiñarik edeŕenak, begijak eta eskubak gorantz jasota, uŕengo bertsua abots zoragaŕiz oguzi eban.

Eguzki, ilargi ta ixaŕ
axiak bere egoak ixan,
zuekandik etoŕijak
gu danok ixan.

Bertzo onek oguzitian, enparau lamiñak, ujujuka ta santzoka asi ziran. Eta, "Pagatzarte,,'ko semiak be, bere atsegiña agertutiaŕen, txalo eŕimiak pozez beterik jo eutsozan. Lamiñari baña, euren jolasak iñortxoko be ikusi ezebezalakuan egozalako, txalo-ots arek etxakiezan atsegingaŕi ixan. Eta bertzuak oguzi ebazanak, begijetatik txinpartak erijozala, asaŕez esan eutson.

—¡Ci mutil zirtzila! Ixilpetik geure jolasari adi e...? Ikusgurea bein asetuten dabenak, baŕiro be asetu gurako yok... Jausiko az...

Eta mutilak, lamiñak asaŕe zirala oartu ebanian esan eban: "¡Auxe baltza! Ondo gureaz txalotu, ta asaŕatu? Noyan berizala emetik, bestela galduba nok" Eta arinka etxeratu zan.

Ganeko egun baten "Pagatzaŕte,,'ko mutila Durango'n ondotxo apalduta gero, gauerdi ostian, Mañarirantza abijau zan: eta Mendibetan, neskatil dotorien idurijan, lamiña bi jantzan jolastuten iñardubela ikusi ebazan. Eta, bera be, (arek jantzan ikustian jolaserako gogoa sortuta) neskatilen artera juanda, saltoka ta ikotika asi zan.

Lamiñak baña, zolijetan be zolijak ixan; eta beñola, Sagarmin'go landan egin ebezan jolasen adi, ixilian egon zana axe bera zala igaŕi ebenian, sekulako zartada eŕimiak emonda, txaŕto zauriŧu eben. Eta azkenez, bide zati baten tatoŕaz erabilita gero, Arpeldu'ko zubijan bertan bera itxi eben.

Bijaramonian, eŕiko jentiak, "Pagatzaŕte" 'ko mutila, Arpeldu'ko zubijan erdi-ilik aurkiŧu eben. Eta zer jazo yokan jakitiaŕen, bere konortera ekarteko alegiñak alegin egin ebezan; baña gustija alpeŕik. Orduban, atsuen batiri otu yakon, mutilaren zaurijak, "parte txaŕeko" gaizkiñen batzuk egiñikuak ixango zirala; ta "bedenkaziño" batzuk emotia onena ixango zala ta abaŕ. Azkenez, gustijak ondo eretxita, "bedenkaziño" batzuk emon eutsiezan. Eta mutila, beriala konorteratu zan.

Eta zer jazo yakon iŧandu eutsoenian, mutil gixajuak, erdi-negaŕez bertsoetan onan erantzun ei-eban.

¡Ai ene bada, oi ene bada!
zelan naguan gexoŕik,
lamiñak ostikadia emonda
sayetz bat daukat ausirik.

Sayetz bat daukat ausirik
bijotza daukat tristerik,
ementxe nauka laŕirik.

MAÑARIKO.

THE Y ELIXIR PUJOL

Es el purgante ideal, el más cómodo, eficaz y seguro preventivo contra las enfermedades infecciosas, como son: gástricas, tifus, gripe, etc. Fíjense antes de adquirir el preparado de si lleva el nombre PUJOL, para no ser engañados.

De venta, en farmacias, droguerías y herboristerías.

Depósito general: PRODUCTOS PUJOL, S. A., San Pedro Mártir 6, Barcelona. (G.) Teléfono 75 373

ERDU NEURER

I

Ilunbaŕa zan. Otzamaŕ. Giroaren atsegiñera mendirantz jo neban ibai-eŕtzeko bide txiñoŕ batez ziaŕ. Eta lasteŕ ibai eŕtzeko aixe me bustijandik iges, baŕurantza eta gorantz zuzendu nitzan bustindun buŕdi bidea aŕtuaz.

... ...

Uriŧik uŕun, laño onduan, basotxono zaŕ zabala; eguzki galdaz bere oŕmeak goriŧuta dauzan basotxono itzala.

Nekatuta eldu nitzan. Atseden apuŕa ixeŕdi kenduz, eta baŕura oldozkoŕ. Basotxono oro antzera, zaŕa eta utzia. Oŕ emen deun irudi zikiñak nolanai ormetan eskegijak. Eŕdi-eŕdijan Josu gurutzaldubaren antzirudia; bere gañian idazkun zaŕ autsez beŧia. "Eŕdu neureŕ".

Abeŕi aldezko otoi labuŕa ta kanpora.

II

Etxera oŕduko gaba. Gau iluna. Bide eŕtzetan irudipen bilduŕkoŕak ugari. Etxean atsedena ta gentzea.

Neke sendalaria,
buru argitzalea,
lanaren saria...
amestegi guria...

iñuan "Lizaŕdi,,'k oyatzaz.

Eta benetan. Belaxe oldozkoŕ jaŕija naz. Eŕdu neureŕ, neu-oldozkuna.

III

Itz leun-biguñak Josu-renak, itxaŕkoŕak, matekoŕak.

Aberastasun jabe egiñaz aŕotuta eta aundikiro bixi zarian ugazaba, eŕdu neureŕ eta ikasi nigan esku zabala ta maŧekoŕa ixaten.

Eŕdu ta ikasi nigan txirua maŧe ixaten, langilia zuzen erabilten.

Txiro, apal, nolanai zabiltzan langilia, eŕdu neureŕ ta ikasi nigan areriyua onaŕtzen, berari iguin ta goŕotorik ez ixaten. Asketsi egijozube, zeŕ egiŧen daben estakijelako.

Eta bere deya gustijentzat zuzendutzen dau. Ankeŕak, bijotz biguñak, jakintsubiŕ, Jakingeak, aundikijak, txiruak, gustijak dira Josu'gandik deŧubak. Orontzat da basotxonoko didaŕa. Eŕdu neureŕ.

IV

Oldozkunak abeŕirantz be zuzendu yatza ta abeŕi oindian basotxonoko idazkuna irakuŕi dot; abeŕi ameagandik be Josu'ren didaŕ beŕbera entzun egin dot.

Eŕdu neureŕ, ameagandik uŕun zabiltzan euzkotaŕoi ta neure samiñetan ikasi ez maŧatuten; ikasi neu ezagutzen.

Eŕdu neu-goŕototzalioi ta neure maŧanagan ikasi, neure ontasuna ta amaŧasuna ezagutu eta zeure zitalkerijan goznaŕtu.

Eŕdu baña be orain aŕte lez neu maŧaŕi beste anayak lez amagandik iges ibili ai zeure okeŕak ezagutu ta bide zuzenera o du zariano: eŕdu neureŕ ta sutsutu -bijotza nigan.

Ikasi neure zoritxaŕean zeure auŕera tzeraño bidia; bustaŕtu zeure bijotza n gan, neuk lez gaxo baŕdiña euki ta jasan naz osakai bila asi gaiŧezan; aspalditik txarogun azkatasuna ainbat lasteŕen idazdagigun.

Eŕdu euzkotaŕ oro ta jasan ta itxaneugan Aulan egiŧen badozu zoruntzat ixango zara, zorijona Delzant'taŕ Gabi 'k diñuanez noŕbere eginbiaŕa betiak tuten daun poza dalako.

Eta euzkotaŕaren eginbiaŕa gauŕ eta bere ameagaz egon eta bere zoritxaŕ zorijonakaz bustaŕtuta ibiliŧia dalako.

Euzkotaŕa, entzun abeŕi didaŕa: neureŕ.

ARTETA

VIDA RELIGIOSA

BODAS DE PLATA DE LA SECCIÓN ADORADORA NOCTURNA DE BARAKALDO

Después de un solemne novenario a sús Sacramentado, con creciente asistencia de fieles en su transcurso, dirigido el doctor don Eugenio Beitia, quien palabra de verdadero orador sagrado hecho vivir en el auditorio las enseñ de vida cristiana, llegó la noche de la gilia general extraordinaria tan desea a la que se han dado cita muchísimos radores portando banderas.

Cuando las cincuenta y tantas ban presididas por las de Portugalete, teiz y Barakaldo han transpasado los brales del templo, es entonado por llos pechos varoniles el emocionante xila regis".

Se expone a S. D. M., y el doctor tia pronuncia un tiernísimo y alec fervorín eucarístico compendiando en ves frases la grandeza del Sacramento la Eucaristía.

Y ya hasta las tres de la madrugada que comenzaron las oraciones de la na para dar principio a la santa incesante el desfile de fieles que de acompañar a los adoradores de anté el Amor Sacramentado.

A dicha hora, y con autorización ilustrísimo señor obispo, tenía lu mismo ti